


#### 4. DIRU SARRERAK / FUENTES DE INGRESOS

Gure diskotekarako sarreren prezioa 10 eta 15 euro bitartekoa da, eta prezio hori bozkatzeko eskubidea duten publiko guztiarentzat sortu dugun inkesta baten bidez lortutako emaitzak kontuan hartuz finkatu da. Inkesta honetan galdetu dugu zein izango litzatekeen preziorik egokiena gure lokalean sartzeko, eta, beraz, prezio hori aukeratu dugu bezeroak berak eskatuta. Prezio hori gure enpresan kontratatuta dugun diseinatzaile pertsonal eta ospetsu batek diseinatutako kartelean dago argitaratuta. Hemen ikus dezakezu kartela:



Diru-sarrera motari buruz ari garela, esan dezakegu gure enpresak ordainketa bakarria eskaintzen duela; hau da, behin bakarrik ordaintzen dute, kasu honetan diskotekarako sarrera, eta, beraz, ezingo litzateke epeka ordaindu sarrera hori.

Bestalde, gure enpresak lortuko duen irabazi-kantitatea jakin ahal izateko, izango ditugun kostuen estimazio kalkulua egin dugu eta kalkulu hauek kontuan hartuz ere ezarritako prezioak galerarik sortuko ez dugula ziurtatu gara. Horretarako, grafiko hau egin dugu, non itopuntua ikus daitekeen. Bertan, kostuak eta diru-sarrerak noiz berdintzen diren adierazten da, eta, beraz, puntu horretatik gora irabaziak lortu ahal izango dira. Hona hemen lehen aipatutako grafikoa:



Horren arabera, hilean 5.689 bezero baino gehiago behar ditugu gure enpresak irabaziak izan ditzan. Eta bezero kantitate hau erraz gainditu dezakegula estimatzen dugu. Urte batean buruan, bezero kantitate honetatik urruti gaudela ikusten badugu, kostuak murriztu beharko ditugu edota prezioa piska bat igo, hurrengo urtean diru sarrerak lortu ahal izateko.